



**I. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA**  
**Batzar Nagusiak**

**Bizkaiko Batzar Nagusiak**

**5/2020 FORU ARAUA, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.**

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Arau hau onartu dutela 2020ko uztailaren 15eko osoko bilkuran: «5/2020 Foru Araua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra». Eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2020ko uztailaren 15ean.

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

**ATARIKOA**

Herrialde garatu gehienek dituzten sistemen antzera, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemak informazioa emateko hainbat betebeharrak dituzten zergapekoek tributu-eragina duten eragiketa ekonomikoak egiten dituztenerako. Betebeharrak horietako batzuk autonomoak dira, baina beste batzuek lotura dute zerga batzuen atxikipena edo konturako sarrerak egiteko betebeharrarekin. Betebeharrak horiek ezartzearekin batera, zergen foru-administrazioak beharrezkoak izan diren kontrol-tresnak sortu ditu emandako informazioa ahalik eta ondoen erabiltzeko eta emaitzarik onenak lortzeko. Xedea da zergapeko guztiei kontrol-maila bera ezartzea, haien forma juridikoa edo jasotzen dituzten etekinen tipologia kontuan hartu gabe, zergak ordaintzeko duten betebeharrak behar bezala betetzen dutela bermatzeko.

Hala ere, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) «Salmenten ezabatze elektronikoa: sarrera fiskalari buruzko mehatxu bat» izeneko txostenean (2013) adierazi zuenez, agintari fiskal asko zerga-iruzurraren modalitate bereziak aurkitzen ari dira. Haietako bat da, batetik, diru-sarrera gutxiago aitortzearena, salmenta elektronikokoak kenduta, eta, aldi berean, gastu gehiago aitortzearena, faktura faltsuak erabiltzea. Horregatik, ELGAK zerga-administrazioei gomendatzen die konponbide teknologiko eraginkorrak ezartzea, saiheste-mota horiek eta zerga-iruzurrak detektatu eta ekiditeko.

Gomendio hauen ondorioz, azken urteetan, eragiketak funtsean azken kontsumitzaileekin egiten dituzten enpresaburu eta profesionalen salmentako terminalak kontrolatzeko tributu-sistemak ezarri dituzte gure inguruko herrialde askotan. Hala gertatu da, besteak beste, Austrian, orain dela gutxi, eta Suedian, Polonian, Portugalen eta Quebecen (Kanada), aurreko urteetan.

2016an, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoan Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokatzeko Batzordeak (hiru foru-ogasunek osatzen dute eta Eusko Jaurlaritzak koordinatzen du) agerian jarri zuen, Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuan, azken urteetan salmentak ezkutatzeko eta zerga-aitorpenak egiteko baliagarriak diren kontabilitateko egoera-orriak manipulatzeko informatika-tresna espezifikoak erabilera ugari dela. Eta, jokabide horien kontra egiteko, konpromisoa hartu zuten jardueraren sektore jakin batzuetan fakturazio-sistemak kontrolatzeko tresnak ezartzeko aukera emango duen estrategia bateratu bat prestatzeko.

Jada 2013an, Bizkaian lehen urratsak eman ziren ekonomia-jardueraren etekinei eragiten dien zerga-iruzurra murrizteko estrategia integral bat diseinatu eta ezartzeko. Xede horrekin, Zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituen 2013ko otsailaren 27ko 3/2013 Foru Arauak ezartzen du ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko guztiek eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburu bat izan behar dutela, eta han jaso behar dituztela zergadunaren diru-sarrera eta gastu guztiak. Gainera, liburu horren edukia zerga-administrazioari igorri beharko zaio urtero. Informazioa emateko betebeharrak hau 140 ereduaren bidez bideratu da tributu-araudiaren pean dauden ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko zergadunentzat. Betebeharrak horren bidez, zerga-administrazioak arlo honetan zuen informazio gabezia konpondu da, eta urte hauetan aplikatuta frogatu da oso eraginkorra dela etekin mota hauek kontrolatzeko. Beste ekimen berriago bat izan da BEZa kudeatzeko sistema berri bat sartzea zergadun batzuentzat, gehienbat kopuru batetik gorako eragiketa-bolumenak dituzten pertsona juridikoentzat. Estatuko zerga-administrazio guztietan sartu da sistema hori, eta informazioa berehala emateko sisteman (IBES) oinarrituta dago.

Oraingo Foru Arau hau onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egingo da BATUZ izeneko estrategia integral horren inplementazioan, ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona edo erakunde guztien tributazioa kontrolatzeko, edozein delarik ere haien eragiketen tamaina edo bolumena. Halaber, aurrerapauso bat izango da zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.



Dituen bi tituluetan, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera bere efikazia erabat zabalduko duen BATUZ proiektuaren euskarri diren hiru zutabeen arau-oinarriak ezartzen dira. Hauek dira zutabe horiek: fakturazio-sistematan tresna teknologiko berriak ezartzea, zergadunei neurri teknologiko aurreratuak erabiltzeko betebeharrak ezarritako; ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona guztientzat —fisikoak zein juridikoak— informazio-betebeharrak berdintzea, pertsona juridikoei eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izateko betebeharrak ezarritako, eta Bizkaiko Foru Ogasunak zergadunen eskura jartzea aitortzen zuzeneko zergak, tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko haien ekonomia-jardueren etekinak zergapetzen dituzten zerga garrantzitsuenei dagokienez.

Fakturazioko sistema informatiko berriaren ezarpenetik eratorritako betebeharrak betetzea 2022ko urtarrilaren 1era arte exijitu ezin den arren, Bizkaiko Foru Ogasunak nahi du dagozkien zergadunak, hala nahi badute, borondatez eta pixkanaka sartzeko sistema horretan, eta horretarako aurreikusitako sistema ezartzeko arau-esparrua onartzea, zeinetan berariazko zerga-pizgarriak sartuko baitira, eta mekanismo guztiak hilabete batzuk lehenagotik martxan jartzea.

I. tituluan, batetik, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat jartzeak eragindako betebeharrak ezartzen dira. TicketBAI da sistema hori, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zerga-administrazioek elkarrekin batera ezarriko dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Bestetik, informazio-betebehar berriak ezartzen dira pertsona juridikoentzat, eragiketa ekonomikoei dagokienez, eta, hala, duela urte batzuetatik hona Bizkaian pertsona fisikoek dituzten betebeharrekin parekatzen dira. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Ogasunaren BATUZ proiektuaren zutabee-tako bi diren betebehar horien arteko integrazioa arautzen da.

Aurrekoarekin bat, TicketBAI betebehar berria modu berean ezarri da sozietateen gaineko zergaren eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren foru-araue-tan, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan tributatzeko duten establezimendu iraunkorrei ere aplikatuko zaie. Foru Arau honen bidez, ekonomia-jardueren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak erregistratzeko eta eragiketarako justifikatzen dituzten fakturak edo bestelako dokumentuak emateko, sistema informatikoak bete behar dituen betekizun legalak eta teknologikoak gehitu dira Foru Arau horietan. Hala ere, ezartzen da aurrerago ezarriko direla sistemaren zehaztasunak, erregelamenduz.

Ondoren, aipatutako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den software espezifikoa-ren hornitzaileak inskribatu beharko diren erregistro bat sortuko dela zehazten da. Erregistro horren bidez, zergadunei konfiantzazko hornitzaileen zerrenda bat eskainiko zaie. Izan ere, erregistroan inskribatuta daudenei konpromisoa hartu behar dute TicketBAI sistemaren betekizunak betetzen dituen produktua eskaintzeko. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuko dute.

Nahitaezko sistema honen beste ezaugarrietako bat da orokortzea. Hala, foru-araue-tan, salbuespen gisa, kasu zehatz batzuk ezartzen dira, zeintzuetan zergaduna —pertsona fisiko edo juridikoa— salbuespen egongo den ezarritako betebehar berriak betetzetik. Kasu batzuetan, erabateko salbuespenak izango dira; baina, beste batzuetan, berriz, betebeharrak osatzen duten elementuetako batzuk bete beharko dira.

Fakturazio-terminalen sistema berriak, bere edozein formatan, eskatzen duen egokitzapenak eta, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak fakturatzeko, pertsona fisikoek eta juridikoek gaur egun erabiltzen dituzten sistema informatikoetan egin beharreko egokitzapenak duten inpaktu ekonomikoaz jabetuta, eta, TicketBAI sistemak eskatzen dituen betekizunak betetzeko epea baino lehen, betebehar hori bete behar duten pertsona asko sistema berriaren borondatez sartzeko sustatzeko, zerga-pizgarri iragankorrak ezarri dira sozietateen gaineko zergan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan —establezimendu iraunkorretarako— eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan. Kuotan %30eko kenkari gisa sartu dira pizgarriok, ezarritako betebehar berriak direla-eta zergadunek dituzten kostuak arintzeko. Kenkariaren oinarria 2020. eta 2021. urteetan egiten diren gastuen eta inbertsioen arabera zehaztuko da.



Sistema ixteko tresna gisa, ELGaren 2013ko txostenean eta 2017an eta 2019an argitaratutako txostenetan —«Ihes fiskalari eta iruzur fiskalari aurre egiteko tresna teknologikoak» eta «Implementing online cash register: benefits, considerations and guidance», hurrenez hurren— egindako gomendioak aintzat hartuta, intentsitate bereziko zehapen-araubide bat ezarri da sozietateen gaineko zergan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan —establezimendu iraunkorretarako— eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik egindako arau-hausteei lotuta. Arlo horretan, hiru zehapen zehazten dira, eta, batetik, zergadunei ezarriko zaizkie betebeharrak ez betetzeagatik edo ekonomia-jarduera baten barruan egindako ondatsun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak suntsitu, ezabatu edo manipulatzeko, eta, bestetik, softwarearen garatzaileari edo hirugarren bati, haiek direnean softwarea suntsitu, ezabatu edo manipulatu dutenak.

Ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoen kasuan zein pertsona juridikoen kasuan, sistema informatiko hori erabiltzearen ondorioz sortzen den informazioa Zerga Administrazioari bidali behar zaio, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez. Puntu honetan ezartzen da I. tituluan araututako BATUZ proiektuaren bi betebeharren arteko lotura, informazio hori bidaltzeko, pertsona fisikoek eta juridikoek bete behar dituzten eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak osatzen dituzten idazpenak bidali behar baitira, erregelamenduz ezarritako baldintzak beteta.

Hala, pertsona fisikoen kasuan, doikuntza batzuk sartu dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 114. artikuluan ezarritako eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua izateko betebeharrean, eta ezarri da, 2022ko zergalditik aurrera, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egin beharko dela, osatzen duten erregistroak elektronikoki emanda. Halaber, kapitulu berri bat eskatzen da erregistro-liburuaren barruan: tributuen arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua. Horrez gainera, zehazten da, erregistro-liburuko diru-sarreraren eta egindako fakturen kapituluan, fakturazioa TicketBAI sistemaren bidez egiteko betebeharrean aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko direla bereziki.

Pertsona juridikoen kasuan, betebeharrak berri bat ezarri da: eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egin behar dute 2022ko zergalditik aurrera. Horrez gainera, liburua osatzen duten kapituluak zehaztu dira eta betebeharrak horri dagozkion gainerako elementuak aurrerago erregelamendu bidez garatuko direla xedatzen da. Era berean, pertsona fisikoen kasuan bezala, zehazten da, egindako fakturen kapituluan, fakturazioa TicketBAI sistemaren bidez egiteko betebeharrean aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko direla bereziki.

Bestalde, II. tituluan, Bizkaiko Foru Ogasunaren tributuen kudeatzeko ereduaren ikuspegia aldatzeko oinarriak ezartzen dira, eta ardatza da zergadun guztiei laguntza ematea tributu-betebeharrak borondatez bete ditzaten, bakoitzaren ezaugarri subjektiboak eta ordaindu behar duten zerga mota alde batera utzita. Horretarako, zergadun gehiago eta zerga gehiago hartuko dituzten laguntza-tresnak ezarriko dira. Testuinguru horretan, BATUZ proiektuaren hirugarren elementua osatzeko behar diren arauen aurreikuspenak egiten dira.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 83.2.d) artikuluan ezartzen da Zerga Administrazioak laguntza eman behar diela zergapekoei autolikidazioak eta aitortpenak egiteko, eta teknika eta bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabili eta aplikatuko direla. Egin behar hori betetzeko, Bizkaiko Zerga Administrazioak urteak daramatza zergadunei zerbitzu ugari eskaintzen: laguntza-programak, betetzeko plataformak, zerga batzuei buruzko eskuliburuak eta gida didaktikoak, etab.

Normalean, laguntza eskaintzeko betebeharrak hori betetzeko, Zerga Administrazioak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoriozko betebeharren arloan garatu ditu baliabide gehienak (ekonomikoak, informatikoak, giza baliabideak), zerga horren eraginpean dauden zergadunen kopuru handia eta profilarren aniztasuna kontuan hartu-



ta. Arlo horretan, oso ezaguna da Rentanet Etxean sistema, erabat sendotuta dagoena. Haren bidez, Zerga Administrazioak autolikidazio-proposamenak egiten dizkie zergadunei. Bizkaiko zergadunen ebaluazio onenetakoa duten zerbitzuetako bat da. Hala ere, sistema horren konfigurazioaren eta funtzionamenduaren ezaugarrien ondorioz, ezin zaie zerga honen zergadun guztiei eskaini. Izan ere, kolektibo horren erdiarekin baino ez da erabiltzen.

Hala, bada, Bizkaiko Foru Ogasunak erronkatzat hartu du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun guztiengana iristea 2021eko kanpainan (2020ko zergaldiari dagokiona), Rentanet Etxean sistemaren antzeko kalitatea eta intentsitatea izango duen laguntza-zerbitzu bat eskainita zergadun guztiei, baita ondarearen gaineko zergaren zergadunei ere.

II. titulu honetan, kudeaketa-eredu berri horren oinarriak ezartzen dira, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatzen dira, zerga horietan, autolikidazioak aurkezteko betebeharraren ordean, aitorpenak aurkeztekoa ezartzeko 2021ean likidatu beharreko 2020. urteari dagokion zergalditik aurrera.

Bi dira pertsona fisikoen zuzeneko zergapetzea kudeatzeko eredu berri honen berrietasun garrantzitsuenak. Lehenengoa da zergadunek Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dituztela zerga horien aitorpenak. Bigarrena da Foru Ogasunak aitorpen-zirriborroak eskainiko dizkiela zerga bi horien zergadun guztiei, Zerga Administrazioak dituen datu guztiak kontuan hartuta. Hala, dagokion zergaren likidazioa egiteko behar diren datu guztiak dituzten zirriborroak modu espresuan berretsi ahal izango dira, edo isilbidez, zergadunari dirua itzuli behar bazaio. Horrela eginda, betetzat joko da zergadunei dagokien aitorpena aurkezteko betebeharra. Zirriborroak ez badaude guztiz beteta, zergadunek beharrezkotzat joko dituzten datuak sartu beharko dituzte, zerga horien aitorpena aurkezteko betebeharra betetzeko.

Pertsona fisiko zergadun guztiarentzat –2020an ekonomia-jarduerak egiten dituztenentzat barne– martxan jarriko den kudeaketa-eredu berri hau da BATUZ proiektuaren hiru garren zutabea. Eta zutabe hori perfektionatu egingo da pertsona juridikoentzat, 2022ko zergalditik aurrera. Hala, pertsona juridikoei ezarri zaien eragiketa ekonomikoen erregistroa egiteko betebeharrak berriari esker, eredu hori sozietateen gaineko zergan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan aplikatu ahal izango da ere. Horretarako, zerga horien zergadunei aitorpen-zirriborroak eskainiko zaizkie, eta Zerga Administrazioak laguntza aktiboa emango die 2022ko zergaldiko aitorpena aurkezteko kanpainan –2023an egitekoa– tributu-betebeharrak borondatezko epean betetzeko lanak errazteko.

Halaber, balio erantsiaren gaineko zergan, pertsona fisikoei eta juridikoei ezarritako erregistro-liburuak izateko betebeharrak eta indarrean dagoen informazioa berehala emateko sistemak –informazio horren edukia erregistro-liburuetan sartuko da aurrerago, hala eskatu ahal den kasuetan– aukera emango dute zerga honetan ere aplikatzeko Bizkaiko Zerga Administrazioaren laguntza. Hala, zergaren autolikidazioaren zirriborroak eskainiko ditu, Foru Arau honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Beraz, II. titulu honetan, laguntza zabaltzeko eta zergadun guztiei tributu-betebeharrak betetzeko prozesua errazteko, Bizkaiko Zerga Administrazioak dituen helburuak betetzeko aukera emango duen arau-esparrua ezartzeko behar diren aurreikuspenak eta zehaztapenak jasotzen dira.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatua betetzeko, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio Foru Arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.



## I. TITULUA

**ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZU-PRESTAZIOAK DOKUMENTATZEN  
DITUZTEN ERREGISTROEN OSOTASUNA, KONTSERBAZIOA, TRAZABILITATEA  
ETA BORTXAEZINTASUNA BERMATZEN DITUEN SISTEMA  
INFORMATIKO BATEN EZARPENA****1. artikulua.—Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko  
11/2013 Foru Arauaren aldaketa**

*Lehenengoa:* 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

*Bat.* 122 bis artikulua gehitu da; hau da haren edukia:

«122 bis artikulua.—Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema

1. Zerga honen zergadunek sistema informatiko bat erabili beharko dute beren jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko. Sistema horrek betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla eta, sinadura elektronikoa duen fitxategi informatiko bat sortu beharko dute, eta erregelamenduz ezarritako formatua, edukia eta ezaugarriak izan behar ditu. Eragiketak justifikatzen dituen faktura edo dokumentua —euskarri elektronikoa edo paperean sortutakoa— egin baino lehen sortu beharko dute fitxategi hori.

Zehazki, letra honetan aipatzen den fitxategi informatikoan, eragiketa justifikatzeko, euskarri elektronikoa edo paperean emandako fakturaren edo dokumentuaren —hurrengo b) letran aipatzen den faktura edo dokumentuaren aurre-aurrerekoa— identifikazioa jaso behar da, baita erabilitako softwarea garatu duen pertsonaren edo erakundearen identifikazioa ere.

b) Eragiketak justifikatzen dituen euskarri elektronikoa edo paperean sortutako fakturak edo dokumentuak dokumentuaren identifikazio-kode bat eta "QR" kode bat izan beharko ditu. Kode horiek erregelamenduz ezarritako zehaztapenekin bat etorrita sortu beharko dira.

2. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharrak betetzeko, zergadunek hauek erabili beharko dituzte:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak haien esku jartzen duen aplikazio informatikoa, erregelamenduz ezartzen diren mugak eta baldintzak beteta.

b) Ondorio hauetarako sortutako erregistroan inskribatutako software bat, zeinak erregistro horretan inskribatutako pertsona edo erakunde batek garatutakoa izan behar duen. Pertsona edo erakunde horrek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du.

Letra honetan aipatutako erregistroan inskribatzeko, inskripzioa aldatzeko edo baja emateko, erregelamenduz ezarritakoa bete beharko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako softwarea zergadunak berak garatzen duenean, zergaduna inskribatu beharko da erregistro horretan.

3. Zergadunak aurreko 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik salbuetsita egongo dira eragiketa hauei dagokienez:

a) Zerga Administrazioaren baimena dutenak baldintza berezietan laborpen-idazpen bereziak egiteko, dagokion jarduera-sektoreko merkataritza- edo administrazio-jardunbideak edo fakturak eta kontabilitateko frogagiriak egiteko baldintza teknikoak direla eta, aipamen edo informazio hori jasotzea zaila dela egiaztatzen bada.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko 5. artikuluan xedatu-





takoarekin bat etorrira, faktura egiteko betebeharra materialki eragiketaren hartzaileak betetzen duenean, betiere hartzaileari ez bazaio aplikatu behar Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko arautegia edo Araba edo Gipuzkoako lurralde historikoetako, eta artikuluko honetako 1. apartatuan jasotako antzeko betebeharrak badituzte.

c) Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko bigarren eta bosgarren xedapen gehigarrietan aipatutako eragiketak.

d) Erregelamenduz ezartzen diren gainerakoak.

4. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zergadunak salbuetsita egongo dira aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako "QR" kodea sortzetik ondoren aipatzen diren eragiketei dagokienez, baina salbuespen horrek ez die eragingo apartatu horretan ezarritako gainerako betebeharrei. Hauek dira salbuespenerako aukera ematen duten eragiketak:

a) Jasotzaileztat bere jardueraren barruan enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituen pertsona edo erakunde bat dituzten eragiketak edo jasotzaileztat administrazio publiko bat dutenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 7. artikuluko 8. apartatuko B) letran ezarritako baldintzetan, betiere, jatorrian, irakurri ezin den formatu elektronikoa batean egin badira.

b) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako eragiketak.

5. Zergadunek artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen diren betebeharrak betezearen ondorioz sortzen den informazioa bidali beharko diote Zerga Administrazioari, eskatutako gainerako informazioarekin batera, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan.

6. Zerga Administrazioak aukera bat jarriko du euskarri elektronikoa edo paperean dauden fakturen edo dokumentuen jasotzaileen eskura, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez faktura edo dokumentu horiek egin dituzten zergapekoek 1. apartatu horretan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko aukera izan dezaten.

Erregelamendu bidez garatuko da egiaztapen hori egiteko modua.»

*Bi.* 122. ter artikulua gehitu da; hau da haren edukia:

«122 ter artikulua. — Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua

1. Zerga honen zergadunek eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izan beharko dute. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez egin beharko da, osatzen duten erregistroak elektronikoki emanda.

Erregelamendu bidez zehaztuko da noiz joko den guztiz betetzat zergaldi edo likidazio-aldi bakoitzari dagokion informazioa, Foru Arau honetako 126.7 artikuluan aipatzen den aitopenen zirriborria sortzeko eta 5/2020 Foru Arauko lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen den autolikidazioaren zirriborria sortzeko.

2. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua zergari buruzko erregelamenduan zehazten den bezala egin behar da, eta honako kapitulu hauetan sailkatu:

— Egindako fakturen kapitulua.

— Jasotako fakturen kapitulua.

— Inbertsio-ondasunen kapitulua.

— Batasunaren barruko zenbait eragiketen kapitulua.

— Tributuen arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua.

— Kontabilitate-mugimenduen kapitulua.

3. Egindako fakturen kapituluan, Foru Arau honetako 112 bis artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko dira bereziki.»



*Hiru.* Aldatu egin da 133. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«133. artikulua. — Arau-haustea eta zehapenak

1. Artikulu honen hurrengo apartatueta eta Foru Arau honen gainerako manuetan xedatutakoaren kalterik gabe, zerga honen arloko arau-haustea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritz zehatuko dira.

2. Zerga-arloko arau-haustea dira hauek:

a) Foru Arau honetako 122 bis artikuluan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoarekin bat, jarduera baten barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat ez erabiltzea.

b) Jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak — Foru Arau honen 122 bis artikuluan aipatzen dira — suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeari.

3. Zehapen hauek ezarriko dira aurreko apartatuan adierazitako arau-hausteengatik:

a) Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den ez-betetzeagatik, zergadunari negozio-zifraren %20ko diru-isun proportzionala ezarriko zaio. Isun hori 20.000 eurokoa izango da, gutxienez.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio-zifrarik dagoen magnitudea urtekotu egingo da.

Arau-haustea jarduera hasi denean egiten bada, lehenengo ekitaldiari dagokion negozio-zifra hartuko da kontuan, eta, ekitaldi hori urtea baino laburragoa bada, ekitaldi horretako negozio-zifrarik dagoen magnitudea urtekotu egingo da.

Subjektu arau-hausteari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, zehapena negozio-zifraren %30eko diru-isun proportzionala izango da. Isun hori 30.000 eurokoa izango da, gutxienez.

b) Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den ez-betetzea noizbehinkakoa denean, 2.000 euroko zehapena jarriko da ez-betetze hori gertatu den eragiketari bakoitzeko.

Ondorio horietarako, ez-betetzea noizbehinkakoa dela ulertuko da egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra bete ez duten eragiketen zenbatekoa arau-haustea gertatu den zergaldiko negozio-zifraren %2 baino handiagoa ez bada.

Hala ere, Zerga Administrazioak egiaztatzen badu arau-hausteari dagokion zergaldia amaitu gabe zegoela egiaztatzen aurreko arau-haustea noizbehinkakotzat joko da aurreko paragrafoan aipatzen diren eragiketen zenbatekoa zergaldiaren une horretara arte egindako negozio-zifraren %2 baino handiagoa ez bada.

c) Aurreko apartatuko b) letran aipatzen den ez-betetzeagatik, zergadunari negozio-zifraren %20ko diru-isun proportzionala ezarriko zaio. Isun hori 40.000 eurokoa izango da, gutxienez.

Ezin izango dira aldi berean ezarri zehapen hau eta aurreko a) letran xedatutako zehapena.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio-zifrarik dagoen magnitudea urtekotu egingo da.





Arau-haustea jarduera hasi denean egiten bada, lehenengo ekitaldiari dagokion negozio-zifra hartuko da kontuan, eta, ekitaldi hori urtea baino laburragoa bada, ekitaldi horretako negozio-zifrari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, zehapena negozio-zifraren %30eko diru-isun proportzionala izango da. Isun hori 60.000 eurokoa izango da, gutxienez.

- d) Zerga Administrazioak egiaztatzen badu Foru Arau honetako 122 bis artikuluan aipatzen diren zergadunaren jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak programa informatikoa garatu duen pertsonak edo erakundeak suntsitu, ezabatu edo manipulatu dituela edo zergaduna ez den pertsona batek aldatu duela edo sistema informatikoaren gainean kontrola izan duela edo duela, pertsona edo erakunde hori joko da arau-hausletzat, eta b) letran xedatutakoaren ondorioz zergadunari aplikatu ahal zaion zenbateko bera ezarriko zaio zehapen gisa. Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, b) letran xedatutakoaren arabera zergadunari aplikatu ahal zaion zenbateko bera ezarriko zaio zehapen gisa, eta gutxienez, 60.000 euroko isuna izango da.

4. Artikulu honetako 2. apartatuko c) eta d) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, kasu hauetan ulertuko da pertsona edo erakunde batek zergadunaren jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarearen eta fitxategi informatikoen suntsipen, ezabatze edo manipulazioan esku hartu duela:

- Softwarea edo artxibo, fitxategi edo erregistro informatikoak aldatu dituenean.
- Sistema informatikoaren, softwarearen edo artxibo, fitxategi edo erregistro informatikoen gaineko kontrola izan duenean edo duenean.
- Zergadunei edo beste pertsona edo erakunde batzuei elementu horiek suntsitu, ezabatu edo manipulatzeko sistemak, bitartekoak edo metodoak eman dizkienean.
- Suntsipen, ezabatze edo manipulazio horretarako jarraibideak eman edo erakutsi dituenean.
- Egite edo ez-egite bat egiten duenean, berez suntsipen, ezabatze edo manipulaziotzat jo ezin bada ere, prozesu horren parte den egite edo ez-egite bat bada eta, beste pertsona edo erakunde batzuen egite edo ez-egitearekin batera, suntsipen, ezabatze edo manipulazio hori eragiten badu.

5. Artikulu honetan ezarritako arau-haustea eta zehapenak bateragarriak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 207. artikuluan ezarritakoarekin.

Hala ere, aurreko 3. apartatuan ezarritako zehapenetako bat ezartzen denean ezin izango da ezarri Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 207.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako zehapena.

6. Aurreko apartatuan xedatutakoa betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.»

*Bigarrena:* Beste xedapen iragankor bat gehitu da, hogeita bosgarrena; hau da haren edukia:

«Hogeita Bosgarrena. —2020. eta 2021. urteetan ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko



bat ezartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egiteko betebeharra betetzea sustatzeko kenkaria

1. Foru Arau honen 122 bis artikuluan aipatutako betekizunak dituen sistema informatiko bat erabili behar duten eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko betebeharra (Foru Arau honetako 122 ter artikuluan dago jasota betebehara hori) betetzen duten zergadunek eskubidea izango dute 2020an eta 2021ean sistema hori ezartzeko egindako inbertsioen eta gastuen zenbatekoaren %30eko kenkaria aplikatzeko kuota osoan, gastuak eta inbertsioak hauetarako direnean:

a) Foru Arau honetako 122 bis eta 122 ter artikuluetan aipatutako betebeharra bete ahal izateko ekipamenduak eta terminalak eskuratzeko, softwarea eta lotutako periferikoak barne.

b) Jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroei dagozkien betebeharrak betetzeko ezarri beharreko sinadura elektronikoko softwarea eskuratzeko.

c) Ekipamendu eta sistema horiek instalatu eta ezartzeko.

2. Artikulu honetako 1. apartatua ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea eman go duten inbertsioak eta gastuak dira 2020. eta 2021. urteei dagozkien zergaldietako zerga-oinarrian sartu beharrekoak.

3. Goiko apartatuetan aipatutako kenkariaren oinarria honela osatuko da: 1. apartatua aipatutako inbertsioen eta gastuen zenbatekoa ken, hala badagokio, inbertsio eta gastu horiek egiteko jasotako dirulaguntzen gainean portzentaje bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, hain zuzen, 100 eta kenkari hau aplikatzen duen erakundeari aplikatzea den karga-tasaren arteko diferentziaren ondoriozko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa.

4. Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako aitortzetan aplikatu ahal izango dira.

5. Kenkari hau bateraezina izango da inbertsio eta gastu bereberkin loturiko beste edozein tributu-onurarekin, amortizatze askatasunari, amortizazio bizkortuari eta baterako amortizazioari dagokienez izan ezik.

6. Foru Arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare-sozietateek xedapen honetan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango dute.

7. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 117.3 artikuluan eta Foru Arau honetako 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikulu honetan jasotzen den kenkaria aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkaria aplikatuko duela; autolikidazioa aurkezten duenean egin behar du adierazpen hori.

Zergadunek aldatu egin ahal izango dute artikulu honetan aipatutako kenkaria dela-eta egindako aukera zerga aitortzeko borondatezko epea amaitu ondoren, betiere Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendua egin ez badie.»

## **2. artikulua. — Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauaren aldaketa**

Honako aldaketa hauek egin dira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauan:

*Bat.* Beste xedapen gehigarri bat gehitu da, hamargarrena; hau da haren edukia:  
«Hamargarrena. — Zehapen-araubidea

Errentak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen dituzten zergadunei Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.»



*Bi.* Xedapen iragankor bakarra «lehenengoa» izango da orain, eta beste xedapen iragankor bat gehitu da, bigarrena. Honela idatzita geratu da:

«Bigarrena.

Foru Arau honetako 19. artikuluko 4. apartatuko a) letran aipatutako kenkariez gainera, errentak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen dituzten zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko hogeita bosgarren xedapen iragankorrean ezarritako kenkaria aplikatu ahal izango dute.»

**3. artikulua. — *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa***

*Lehenengoa:* 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan:

*Bat.* 113 bis artikulua gehitu da; hau da haren edukia:

«113 bis artikulua.—Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema

1. Foru Arau honetako 24. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita ekonomia-jarduerak garatzen dituzten pertsona fisikoek sistema informatiko bat erabili beharko dute beren ekonomia-jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, konterbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko, edozein dela ere haien etekina zehazteko erabiltzen den metodoa. Sistema horrek betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla eta, sinadura elektronikoa duen fitxategi informatiko bat sortu beharko dute, eta erregelamenduz ezarritako formatua, edukia eta ezaugarriak izan behar ditu. Eragiketak justifikatzen dituen faktura edo dokumentua —euskarri elektronikoa edo paperean sortutakoa— egin baino lehen sortu beharko dute fitxategi hori.

Zehazki, letra honetan aipatzen den fitxategi informatikoan, hurrengo b) letran aipatzen dena egin aurre-aurretik euskarri elektronikoa edo paperean emandako fakturaren edo beste dokumentu baten identifikazioa jaso beharko da, baita erabiltako softwarea garatu duen pertsonaren edo erakundearen identifikazioa ere.

b) Eragiketak justifikatzen dituen euskarri elektronikoa edo paperean sortutako fakturak edo dokumentuak dokumentuaren identifikazio-kode bat eta "QR" kode bat izan beharko ditu. Kode horiek erregelamenduz ezarritako zehaztapenekin bat etorrita sortu beharko dira.

2. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharrak betetzeko, zergadunek hauek erabili beharko dituzte:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak haien esku jartzen duen aplikazio informatikoa, erregelamenduz ezartzen diren mugak eta baldintzak beteta.

b) Ondorio hauetarako sortutako erregistroan inskribatutako software bat, zeinak erregistro horretan inskribatutako pertsona edo erakunde batek garatutakoa izan behar duen. Pertsona edo erakunde horrek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du.

Letra honetan aipatutako erregistroan inskribatzeko, inskripzioa aldatzeko edo baja emateko, erregelamenduz ezarritakoa bete beharko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako softwarea zergadunak berak garatzen duenean, zergaduna inskribatu beharko da erregistro horretan.

3. Halaber, aurreko 1. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen dituen sistema informatiko bat erabili beharko dute errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateek eta testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsiek, ahalordea erabili bitartean, baldin eta ekonomia-jarduerak egiten badituzte. Horrek, ordea, ez du galaraziko haien kideei dagokien etekinen esleipena egitea.



4. Zergadunak aurreko 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik salbuetsita egongo dira eragiketa hauei dagokienez:

- a) Zerga Administrazioaren baimena dutenak baldintza berezietan laburpen-idazpen bereziak egiteko, dagokion jarduera-sektoreko merkataritza- edo administrazio-jardunbideak edo fakturak eta kontabilitateko frogagiriak egiteko baldintza teknikoak direla eta, aipamen edo informazio hori jasotzea zaila dela egiaztatzen bada.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, faktura egiteko betebeharra materialki eragiketaren hartzaileak betetzen duenean, betiere hartzaileari ez bazaio aplikatu behar Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko arautegia edo Araba edo Gipuzkoako lurralde historikoetako, eta artikuluko honetako 1. apartatuan jasotakoan antzeko betebeharrak badituzte.
- c) Erregelamenduz ezartzen diren gainerakoak.

5. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zergadunak salbuetsita egongo dira aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako "QR" kodea sortzetik ondoren aipatzen diren eragiketei dagokienez, baina salbuespen horrek ez die eragingo apartatu horretan ezarritako gainerako betebeharrei. Hauek dira salbuespenerako aukera ematen duten eragiketak:

- a) Jasotzailatzat bere ekonomia-jardueraren barruan enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituen pertsona edo erakunde bat dituzten eragiketak edo jasotzailatzat administrazio publiko bat dutenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 7. artikuluko 8. apartatuko B) letran ezarritako baldintzetan, betiere, jatorrian, irakurri ezin den formatu elektronikoko batean egin badira.
- b) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako eragiketak.

6. Zergadunek artikuluko honetako 1. apartatuan aipatzen diren betebeharrak bete-tezaren ondorioz sortzen den informazioa bidali beharko diote Zerga Administrazioari, eskatutako gainerako informazioarekin batera, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan.

7. Zerga Administrazioak aukera bat jarriko du euskarri elektronikoa edo paperean dauden fakturen edo dokumentuen jasotzaileen eskura, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez faktura edo dokumentu horiek egin dituzten zergapekoek 1. apartatu horretan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko aukera izan dezaten.

Erregelamendu bidez garatuko da egiaztapen hori egiteko modua.»

*Bi.* Aldatu egin dira 114. artikuluko 1., 4. eta 6. zenbakiak, eta honela geratu dira idatzita:

«1. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek, foru arau honetako 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izan beharko dute, edozein dela ere haien etekina zehazteko erabiltzen den metodoa. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez egin beharko dira, osatzen duten erregistroak elektronikoki emanda.

Erregelamendu bidez zehaztuko da noiz joko den guztiz betetzat ekitaldi edo likidazio-aldi bakoitzari dagokion informazioa, Foru Arau honetako 104 artikuluan aipatzen den aitortpenaren zirriborroa sortzeko eta 5/2020 Foru Arauko lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen den autolikidazioaren zirriborroa sortzeko.

«4. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua zergari buruzko erregelamenduan zehazten den bezala egin behar da, eta honako kapitulu hauetan sailkatu:

- Diru-sarreraren eta egindako fakturen kapitulua.
- Gastuen eta egindako fakturen kapitulua.
- Jarduerari lotutako ondasunen eta/edo inbertsio-ondasunen kapitulua.



- Batasunaren barruko zenbait eragiketen kapitulua.
- Horniduren eta aurrerakinen kapitulua.
- Tributuen arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua»

«6. Diru-sarreraren eta egindako fakturen kapituluan, Foru Arau honetako 113 bis artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko dira bereziki».

*Hiru.* Aldatu egin da 118. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«118. artikulua.—Arau-hausteak eta zehapenak

1. Zerga honen arau-hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko IV. tituluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, artikuluko honen hurrengo apartatueta eta Foru Arau honen gainerako manuetan jasotako berezitasunen kalterik gabe.

2. Zerga-arloko arau-hausteak dira hauek:

a) Foru Arau honetako 113 bis artikuluan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoarekin bat, ekonomia-jarduera baten barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat ez erabiltzea.

b) Ekonomia-jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak —Foru Arau honen 113 bis artikuluan aipatzen dira— suntsitzea, ezabatzea edo manipulatztea.

3. Zehapen hauek ezarriko dira aurreko apartatuan adierazitako arau-hausteengatik:

a) Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den ez-betetzeagatik, zergadunari negozio-zifraren %20ko diru-isun proportzionala ezarriko zaio. Isun hori 20.000 eurokoa izango da, gutxienez.

Jarduera egin den denbora urtebete baino laburragoa izan bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtekotu egingo dira.

Arau-haustea jarduera hasi denean egiten bada, lehenengo ekitaldiari dagokion negozio-zifra hartuko da kontuan, eta, ekitaldi hori urtea baino laburragoa bada, ekitaldi horretako negozio-zifra dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, zehapena negozio-zifraren %30eko diru-isun proportzionala izango da. Isun hori 30.000 eurokoa izango da, gutxienez.

b) Aurreko apartatuko a) letran aipatzen den ez-betetzea noizbehinkakoa denean, 2.000 euroko zehapena jarriko da ez-betetze hori gertatu den eragiketa bakoitzeko.

Ondorio horietarako, ez-betetzea noizbehinkakoa dela ulertuko da egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra bete ez duten eragiketen zenbatekoa arau-haustea gertatu den zergaldiko negozio-zifraren %2 baino handiagoa ez bada.

Hala ere, Zerga Administrazioak egiaztatzen badu arau-hausteari dagokion zergaldia amaitu gabe zegoela egiaztapena egin den unean, arau-haustea noizbehinkakotzat joko da aurreko paragrafoan aipatzen diren eragiketen zenbatekoa zergaldiaren une horretara arte egindako negozio-zifraren %2 baino handiagoa ez bada.

c) Aurreko apartatuko b) letran aipatzen den ez-betetzeagatik, zergadunari negozio-zifraren %20ko diru-isun proportzionala ezarriko zaio. Isun hori 40.000 eurokoa izango da, gutxienez.



Ezin izango dira aldi berean ezarri zehapen hau eta aurreko a) letran xedatutako zehapena.

Jarduera egin den denbora urtebete baino laburragoa izan bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtekotu egingo dira.

Arau-haustea jarduera hasi denean egiten bada, lehenengo ekitaldiari dagokion negozio-zifra hartuko da kontuan, eta, ekitaldi hori urtea baino laburragoa bada, ekitaldi horretako negozio-zifrari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, zehapena negozio-zifraren %30eko diru-isun proportzionala izango da. Isun hori 60.000 eurokoa izango da, gutxienez.

- d) Zerga Administrazioak egiaztatzen badu Foru Arau honetako 113 bis artikuluan aipatzen diren zergadunaren ekonomia-jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak programa informatikoa garatu duen pertsonak edo erakundeak suntsitu, ezabatu edo manipulatu dituela edo zergaduna ez den pertsona batek aldatu duela edo sistema informatikoaren gainean kontrola izan duela edo duela, pertsona edo erakunde hori joko da arau-hausletzat, eta b) letran xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zergadunari aplikatu ahal zaion zenbateko bera ezarriko zaio zehapen gisa. Subjektu arau-hausleari, ez-betetze honek eragindako arau-haustea dela eta, zehapen bat ezarri bazaio arau-hauste hau egiteagatik aurreko lau urteen barruan, eta zehapen hori administrazio-bidean ebazpen irmo bidez ezarri bazaio, b) letran xedatutakoaren arabera zergadunari aplikatu ahal zaion zenbateko bera ezarriko zaio zehapen gisa, eta gutxienez, 60.000 euroko isuna izango da.

4. Artikulu honetako 2. apartatuko c) eta d) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, kasu hauetan ulertuko da pertsona edo erakunde batek zergadunaren jardueraren barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarearen eta fitxategi informatikoen suntsipen, ezabatze edo manipulazioan esku hartu duela:

- Softwarea edo artxibo, fitxategi edo erregistro informatikoak aldatu dituenean.
- Sistema informatikoaren, softwarearen edo artxibo, fitxategi edo erregistro informatikoen gaineko kontrola izan duenean edo duenean.
- Zergadunei edo beste pertsona edo erakunde batzuei elementu horiek suntsitu, ezabatu edo manipulatzeko sistemak, bitartekoak edo metodoak eman dizkienean.
- Suntsipen, ezabatze edo manipulazio horretarako jarraibideak eman edo erakutsi dituenean
- Egite edo ez-egite bat egiten duenean, berez suntsipen, ezabatze edo manipulaziotzat jo ezin bada ere, prozesu horren parte den egite edo ez-egite bat bada eta, beste pertsona edo erakunde batzuen egite edo ez-egitearekin batera, suntsipen, ezabatze edo manipulazio hori eragiten badu.

5. Artikulu honetan ezarritako arau-haustek eta zehapenak bateragarriak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 207. artikuluan ezarritakoekin.

Hala ere, aurreko 3. apartatuan ezarritako zehapenetako bat ezartzen denean ezin izango da ezarri Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 207.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako zehapena.

6. Aurreko apartatuan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.»





*Bigarrena:* Beste xedapen iragankor bat gehitu da, hogeita bederatzigarrena; hau da haren edukia:

«Hogeita bederatzigarrena. — 2020. eta 2021. ekitaldietan ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat ezartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egiteko betebeharra betetzea sustatzeko kenkaria

1. Ekonomia-jarduerak egiten dituzten zerga honen zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko hogeita bosgarren xedapen iragankorrean ezarritako kenkaria aplikatu ahal izango dute, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko betebeharra betetzen dutenean (Foru Arau honetako 114. artikuluan dago jasota betebeharrak). Xedapen horretan ezarritakoaren arabera eta artikuluan honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta aplikatuko da kenkaria.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria zerga honen kuota osoari aplikatuko zaio, betiere kuota hori bat datorrenean ekonomia-jardueren etekinez osatzen den zerga-oinarri orokorreko kuota zatiarekin.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 117.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, artikuluan honetan jasotzen den kenkaria aplikatu ahal izateko, zergadunak berariaz adierazi behar du kenkaria aplikatuko duela; autolikidazioa aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori.

Zergadunek aldatu egin ahal izango dute zergaren aitortzearen artikuluan honetan aipatutako kenkaria dela-eta egindako aukera zerga aitortzeko borondatezko epea amaitu ondoren, betiere Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendua egin ez badie.»

#### **4. artikulua. — Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2010eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren aldaketa**

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan:

*Bat.* Aldatu egin da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 206. artikuluko 2. apartatuko c) letra, eta honela geratu da idatzita:

«c) Kontabilitatea eta zergen arloko arauak ezarritako liburu eta erregistroak erabili edo zaindu beharra betetzen ez bada, isuna jarriko da, hain zuzen, arau-haustea gertatu den zergaldian arau-hausleak izan duen negozio kopuruaren %1eko isun proportzionala (1.200 euro gutxienez). Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.

Kontabilitatearen euskarri moduan erabiltzen diren programa eta artxibo informatikoak, aurreko paragrafoan adierazitako liburu eta erregistroak eta kodifikazio-sistemak zaintzeko betebeharra betetzen ez bada, isuna jarriko da, hain zuzen, arau-haustea gertatu den zergaldian arau-hausleak izan duen negozio kopuruaren %20ko isun proportzionala (40.000 euro gutxienez). Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio kopuruari dagokion magnitudea urtekotu egingo da.»

*Bi.* Aldatu egin da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 206 artikuluko 2. apartatuko g) letra, eta honela geratu da idatzita:

«g) Erregistro-liburuei dagokienez, zehatu egingo da erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko betebeharrean atzerapena izatea —erregistroak erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan hornitzean—, eta zehapena isuna izango da, proportzionala eta erregistroaren xede den eragiketak justifikatzen dituen euskarri elektronikoen edo paperean eman-



dako fakturaren edo beste dokumentu baten zenbatekoaren ehuneko 0,5ekoa, hiruhileko bakoitzeko gutxienekoa 600 euro izanik eta 12.000 euro gehienekoa.»

**II. TITULUA****SOZietateen GAINeko ZERGAN, EZ-EGOILIARREN ERREntAREN GAINeko ZERGAN, PERTSONA FISIKoEN ERREntAREN GAINeko ZERGAN ETA ONDAREAREN GAINeko ZERGAN AITORPENAREN BIDEZ HASITAKo PROZEDURAK****5. artikulua.— *Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa***

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, apartatu berri bat gehitu da dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. artikuluan; 7. apartatua izango da, eta honela geratu da idatzita:

«7. Foru Arau honetako 122 ter artikuluan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan dagoen informaziotik eta Zerga Administrazioak duen informaziotik abiatuta, Ogasun eta Finantza Sailak aitopen-zirriborro bat jarriko du zergadunaren eskura, artikulua honetako 1. apartatuan ezarritako betebeharra betetzen laguntzeko.»

**6. artikulua.— *Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauaren aldaketa***

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, beste xedapen gehigarri bat, hamaikagarrena, sartu da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauan. Honela idatzita geratu da:

«Hamaikagarrena.—Zergaren aitopenaren zirriborroak establezimendu iraunkorretarako

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 122 ter artikuluan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan dagoen informaziotik eta Zerga Administrazioak duen informaziotik abiatuta, Ogasun eta Finantza Sailak aitopen-zirriborro bat jarriko du errentak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen dituzten zergadunen eskura, Foru Arau honetako 21. artikuluan ezarritako betebeharra betetzen laguntzeko.»

**7. artikulua.— *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa***

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, honako aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan:

*Bat.* Berridatzi egin da 9.17. artikuluko azken paragrafoa; honela geratu da idatzita: «Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zergadunak adierazi behar du zer aplikatu nahi duen: salbuespen hau edo soberakinen araubidea; aukera hori aplikatu nahi den ekitaldiko autolikidazioa aurkezterakoan egin behar du adierazpen hori. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitopena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.»

*Bi.* 3. apartatua gehitu zaio 56.bis artikuluari. Honela idatzita geratu da:

«3. Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko zenbakian xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, aitopenaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitopena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.»

*Hiru.* Berridatzi egin da 56.ter artikuluko 3. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aurreko zenbakian xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, aitopenaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da. Zergaldi baterako egindako au-



kera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.»

*Lau.* Berridatzi egin da 82. artikuluko 4. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«4. Zergaren aitorpena aurkezten duenean, desgaituak edo mendeko pertsonak osorik aplikatuko du kenkaria, non eta ez duen erabakitzen kenkaria berarekin bizi den zergadunak edo haren ardura duenak aplikatzea, aurreko 2. eta 3. apartatueta ezarritako terminoetan. Bigarren aukera egiten bada, eta desgaitua edo mendeko pertsona zergadun batekin baino gehiagorekin bizi bada, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da zergadun bakoitzeko.

Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aipatutako aukera aitorpena aurkezteko unean egin beharko da. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.»

*Bost.* Berridatzi egin da 97. artikuluko 4. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 117. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, aitorpena aurkezten duen familia-unitateko lehen kideak baliatu beharko du aukera, eta ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epearen barruan. Hala ere, aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitu ondoren, egindako aukera aldatu ahal izango da Zerga Administrazioak beste ekintza berri bat egin ez badu.»

*Sei.* Berridatzi egin da hogeita laugarren xedapen gehigarriaren Bat apartatuko hirugarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Egiten den aukera berariaz adierazi behar da hura aplikatuko den ekitaldiko aitorpenean, Foru Arau honetako 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera ezin izango da aldatu zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren.»

*Zazpi.* Aldatu egin da XII. tituluko I. kapituluaren izena, eta honela geratu da idatzita:

#### «I. KAPITULUA

#### **AITORPENAK»**

*Zortzi.* Aldatu egin da 102. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«102. artikulua. — Aitorpena egiteko betebeharra

1. Zergadunek Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu eta sinatu beharko dute zerga honi dagokion aitorpena, erregelamenduz ezartzen diren mugak eta baldintzak beteta.

2. Hala ere, zergadunek ez dute aitorpena egin beharrik, baldin eta lortu dituzten errentak honako iturri hauetatik bakarrik jasotakoak badira:

a) Urteko 12.000 eurora bitarteko lan-etekin gordinak, banakako tributazioan. Muga hori, baterako tributazioan, etekin mota hori lortu duten zergadunetako bakoitzari aplikatuko zaio.

b) 12.000 eurotik gorako lan-etekin gordinak, urtean 20.000 euro artekoak, banakako tributazioan, hurrengo 3. zenbakian jasotzen diren kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik.

Muga hori, baterako tributazioan, etekin mota hori lortu duten zergadunetako bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak batuta (kasu bietan, salbuesiak barne), haien urteko kopuru gordina 1.600 euro baino handiagoa ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik lortutako ondare-irabaziei dagokienez, baldin eta haien atxikipen-oinarria, erregelamenduz ezartzen denaren arabera, ez bada zehaztu behar zerga oinarrian txertatu beharreko zenbatekoaren arabera.



3. Aurreko apartatuko b) letran aipatzen diren zergadunak kasu hauetan daude behartuta zerga honen aitorpena aurkeztera:

- a) Lan-etekinak ordaintzaile batengandik baino gehiagorengandik jasotzen dituztenean.
- b) Ekitaldiaren barruan lan-kontratu bat baino gehiago sinatu dutenean, laborala izan edo administratiboa izan, edo indarrean zegoen kontratua luzatu dutenean.
- c) Ezkontidearengandik edo izatezko bikotekidearengandik konpentsazio-pentsioak jasotzen dituztenean edo Foru Arau honetako 9.1 artikuluan aipatzen diren mantenurako urtekoak barik beste batzuk jasotzen dituztenean.
- d) Erregelamendu bidez ezarritako kasuetako batean daudenean.

Dena den, apartatu honetan jasotakoaren ondorioz zergaduna aitorpena aurkeztera behartuta dagoenean, aukera hauetako bat izango du:

— Zerga honen xedapen orokorrei jarraituz tributatzea, edo

— Soilik lan-etekinak kontuan hartuta tributatzea, honako erregela hauen arabera:

- a) Lan-etekinatarako ezarritako atxikipen-portzentajeen taulak aplikatuko zaizkio sortutako lan-etekinen zenbateko osoari, betiere Foru Arau honetako 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik salbuetsita daudenak sartu gabe.

Ondorio horietarako, atxikipenari lotutako etekinen zenbatekoak zehazteko zein atxikipen-taulak finkatu eta aplikatzeko, zergaren sortzapen-egunean indarrean dauden erregelak hartuko dira kontuan.

- b) Aurreko a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari hau gutxituko zaio: lan-etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa. Hortik ateratzen den kopurua ordainduko zaio Foru Aldundiari, eta erregelamendu bidez finkatzen den eran zatikatu daiteke. Inola ere ez da diru-kopururik itzuliko prozedura hori erabiltzearen ondorioz.
- c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kengarririk, hobaririk, murrizketarik, kenkaririk, baterako zerga-ordainketarako erregelarik edo Zerga honen arautegi erregulatzailean jasota dagoen beste edozein pizgaririk.

4. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroetatik abiatuta —Foru Arau honetako 104. artikuluan aipatzen dira zirriborro horiek—, zergadunek zirriborroetan jasotako datu guztiak aldatu eta/edo osatu behar dituzte, datu horiek eragiten dietenean, eta ezarritako edo ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak erantsi beharko dizkiete aitorpenei.

5. Kausatzailearen oinordekoek aurkeztu eta sinatu egin behar dituzte kausatzaileak zerga hau dela-eta egin gabe utzi zituen aitorpenak, zehapenak izan ezik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. artikulua arabera.

6. Zergadunek bizilekua aldatzen badute, horren berri eman beharko diote Zerga Administrazioari, aldaketa horrek zerga galdatzeko eskumenean ere aldaketak eragiten dituztenean.

7. Zerga honi dagozkion aitorpenak aurkezteko, baita zuzenketak edo administrazio-bideko errekurtsioak aurkezteko ere, bitarte informatiko, elektronikoa edo telematikoa erabili beharko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez aurkeztu beharko dira, erregelamenduz ezarritakoa betez.»

*Bederatzi.* Berridatzi egin da 103. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«103. artikulua. — Aitorpena eta zerga-zorraren diru-sarrera

1. Zergadunek, zerga-egitatea gertatu dela jakinarazteko, aitorpena aurkezten dutenean, behar diren datuak eman beharko dituzte Zerga Administrazioak tributu-beharraren zenbatekoa zehatz dezan behin-behineko likidazioa baten bidez.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluan ezarritakoa gorabehera, zerga honen behin-behineko likidazioan ezartzen den zerga-zorra sartu egin beharko da. Zergadunak zor hori zatikatzeko aukera izango du, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan.



3. Foru Aldundiak onar dezake zerga-zorra ondasun hauek emanez ordaintzea:
  - a) Euskal Kultur Ondareko ondasunak, baldin eta Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990ko uztailaren 3ko 7/1990 Legean aipatzen diren Kultur Ondare Saikatuen Inbentarioan inskribatuta eta/edo Inbentario Orokorrean sartuta badaude.
  - b) Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak, baldin eta Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean eta/edo Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatuta badaude, Espainiako Ondare Historikoari buruzko 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 73. artikuluan xedatutakoaren arabera.  
Ez dira zerga-oinarrian sartuko aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasunak ordainetan ematean agerian geratzen diren errentak, ez eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 58.2 artikuluan aipatutako kasuetan agerian geratzen direnak ere.
4. Kausatzailearen oinordekoek bete egin beharko dituzte zerga hau dela-eta bete gabe dauden zerga-betebeharrak, zehapenak izan ezik, Zergei buruzko Foru Arauko 38. artikulua arabera.»

*Hamar.* Aldatu egin da 104. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«104. artikulua. — Aitorpenaren aurkezpenaren bidez hasitako prozedura

1. Zergadunak aitorpena aurkeztu baino lehen, Ogasun eta Finantza Sailak aitorpen-zirriborro bat jarriko du zergadunaren eskura Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Zirriborro horrek dirua itzultzeko edo ordaintzeko proposamena izango du, administrazioak dituen datuak, aurrekariak edo bestelako elementuak kontuan hartuta.

Aitorpen-zirriborrea sortzeko eta horretarako bakarrik, erregelamendu bidez ezarritako kasuetan, Zerga Administrazioak parametro batzuk erabili ahal izango ditu emaitza lortzeko, eta zergadunak aldatu ahal izango ditu aitorpenean.

2. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroak dirua itzultzeko proposamena duenean:

- a) Zergadunak modu espresuan adierazten badu, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, ados dagoela zirriborroak dituen datuekin, behin-behineko likidazioa egingo da, eta zergadunari itzuli behar zaion kopurua ordainduko zaio horretarako ezarritako epean.
- b) Zergadunak aitorpen-zirriborroarekiko isilbidezko adostasuna adierazi badu, modu espresuan ez duelako adierazten edukiarekiko adostasuna edo desadostasuna, behin-behineko likidazioa egingo da, eta zergadunari itzuli behar zaion kopurua ordainduko zaio, aurreko letran ezarritako epea amaitu eta gero.  
Aurreko bi kasuetan, betetzat joko da zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra.
- c) Zergadunak atzera botatzen badu aurreko b) letran aipatutako aitorpenaren aurkezpen tazitua, aitorpena aurkeztu beharko du, modu espresuan eta, hala badagokio, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aurkeztu eta/edo aldatu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarrak ematen direnean zergadunak aitorpenik aurkezten ez badu, ez aurkeztutzat joko da.

3. Ogasun eta Finantza Sailak dirua ordaintzeko proposamena duen aitorpen-zirriborro bat ematen duenean, zergaduna proposamenarekin ados badago, modu espresuan adierazi beharko du adostasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, aitorpenak aurkezteko borondatezko epea amaitu baino lehen.

Aurreko kasuan, betetzat joko da zerga honen aitorpena aurkezteko betebeharra.

Zergadunak ez badu modu espresuan adierazten ados dagoela, aitorpena aurkeztu beharko du borondatezko epearen barruan eta, hala badagokio, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.



Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarra ematen denean zergadunak aitorenpenik aurkezten ez badu, ez aurkeztuztat joko da.

4. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorenpen-zirriborroak datu ekonomikorik ez badu, zergadunak zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz ezartzen den prozedurarekin bat etorrira.

5. Zergadunak uste badu Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorenpen-zirriborroak ez duela ondo jasotzen bere tributuegoera zerga honi dagokionez, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz ezartzen den prozedurarekin bat etorrira.

6. Aurreko apartatueta deskribatutako prozedura gorabehera, datu berriak agertzen badira, Zerga Administrazioak aldatu ahal izango du emandako aitorenpen-zirriborroa, zergadunak alde aurretik adostasuna emanda, aitorpenera aurkeztu baino lehen.

7. Nolanahi ere, emandako behin-behineko likidazioa berrikusi ahal izango da dagokion prozedura beteta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauarekin bat etorriz.»

*Hamaika.* Beste xedapen gehigarri bat gehitu da, hogeita hamaseigarrena; hau da haren edukia:

«Hogeita hamaseigarrena.—Aldaketa terminologikoa

Foru Arau honetan autolikidazioaz hitz egiten denean aitorenpenaz ari dela ulertuko da».

#### **8. artikulua.—Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren aldaketa**

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, honako aldaketa hauek egiten dira Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauan:

*Bat.* Aldatu egin da 36. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«36. artikulua.—Aitorpenera eta zerga-zorren diru-sarrerara

*Bat.* Zerga honi dagozkion aitorenpenak aurkezteko, baita zuzenketak edo administrazio-bideko errekurtsioak aurkezteko ere, zergadunek bitarte informatiko, elektronikoa edo telematikoa erabili beharko dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez aurkeztu beharko dituzte, erregelamenduz ezarritakoa betez. Aitorpenera aurkezten dutenean, behar diren datuak eman beharko dituzte Zerga Administrazioak tributuegoeraren zenbatekoa zehatz dezan behin-behineko likidazioa baten bidez. Halaber, ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Zehazki, ekonomia-jarduerei dagozkien ondasunak, eskubideak eta zorrak eta haien balioa jaso behar dituzte aitorpenean. Orobat jaso behar dituzte Foru Arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera moduren batean edo bestean salbuetsirik gelditzen diren partaidetzak eta haien balioaren zatia.

Halaber, aitorpenean jaso behar dituzte berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, Foru Arau honetako 5. artikuluko 12. eta 13. apartatueta xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenak edo zerga honen zerga-oinarria murrizteko eskubidea ematen dutenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluan xedatutakoa gorabehera, zergadunak zerga honen behin-behineko likidazioan ezartzen den zerga-zorra sartu beharko du, erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako. Ezin izango da zatikatu zerga-zor horren ordainketa.

Zerga-zorra ordaintzeko, ondasun edo eskubideak eman ahal izango dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 58.2 artikuluan zehazten diren baldintzetan.

*Bi.* Zergadunak aitorpenera aurkeztu baino lehen, Ogasun eta Finantza Sailak aitorenpen-zirriborro bat jarriko du zergadunaren eskura Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza





elektronikoaren bidez, administrazioak dituen datuak, aurrekariak edo bestelako elementuak kontuan hartuta.

Aitorpen-zirriborroa sortzeko eta horretarako bakarrik, erregelamendu bidez ezarritako kasuetan, Zerga Administrazioak parametro batzuk erabili ahal izango ditu emaitza lortzeko, eta zergadunak aldatu ahal izango ditu aitorpenean.

Zergadunak uste badu aitorpen-zirriborroak ez duela ondo jasotzen bere tributu-egoera zerga honi dagokionez, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz ezartzen den prozedurarekin bat etorrita.

*Hiru.* Ogasun eta Finantza Sailak dirua ordaintzeko edo zero emaitza duen aitorpen-zirriborro bat ematen duenean, zergaduna proposamenarekin ados badago, modu espresuan adierazi beharko du adostasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, aitorpenak aurkezteko borondatezko epea amaitu baino lehen.

Aurreko kasuan, betetzat joko da zergadunak zerga honen aitorpena aurkezteko duen betebeharra.

Zergadunak ez badu modu espresuan adierazten ados dagoela, aitorpena aurkeztu beharko du borondatezko epearen barruan eta zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aldatu eta/edo aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarra ematen denean zergadunak aitorpenik aurkezten ez badu, ez betetzat joko da zerga honi dagokion aitorpena aurkezteko betebeharra.

*Lau.* Zerga honegatik aitorpena aurkeztu behar duen zergadunak, aitorpen-zirriborrorik ez badu, zergaren likidazioa egiteko behar diren datuak eta dokumentazioa aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarra ematen denean zergadunak aitorpenik aurkezten ez badu, ez betetzat joko da zerga honi dagokion aitorpena aurkezteko betebeharra.»

*Bi.* Lehen xedapen gehigarria sartu da; hau da haren edukia:

«Lehenengo Xedapen Gehigarria.— Aldaketa terminologikoa

Foru Arau honetan autolikidazioaz hitz egiten denean aitorpenaz ari dela ulertuko da.»

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

#### **Lehenengo Xedapen Gehigarria.— Autolikidazio-zirriborroak balio erantsiaren gaineko zergan**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 114. artikuluan aipatutako eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuetan dagoen informazioan oinarrituta eta Zerga Administrazioak duen informazioan oinarrituta, Ogasun eta Finantza Sailak autolikidazio-zirriborro bat jarriko du zergadunaren eskura, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 167. artikuluko 1. apartatuan ezarritako betebeharra betetzen laguntzeko.

#### **Bigarren Xedapen Gehigarria.— Erregistro batzuen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat borondatez aplikatzea eta software bermatzailearen erregistroa 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen martxan jartzea**

*Bat.* Foru Arau honen I. Tituluan jasotako berariazko ondorioei kalterik egin gabe, zergadunek borondatez aplikatu ahal izango dute 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osota-



suna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen duen sistema informatikoa, titulu horren bidez ezarria, erregelamendu bidez zehazten den unetik aurrera.

*Bi.* Era berean, erregelamendu bidez zehaztuko da noiz hasiko den martxan Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis.2 artikuluko b) letran eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 113 bis.2 artikuluko b) letran aipatzen den software bermatzailearen erregistroa, zeina, nolana ere, urtarrilaren 1a baino lehen egingo baita.

#### **Hirugarren Xedapen Gehigarria**

Aipatutako aginduetan ezarritako aldaketak aplikatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Arau honen 7. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoa baino geroagoko ondorio-data bat ezarri ahal izango du erregelamendu bidez, tributuak aplikatzeko prozedurak behar bezala garatzeko behar diren teknologia- eta antolaketa-garapenak erabat ezartzen direla bermatzeko.

Kasu horretan, xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren arabera ezarritako egunera arte izango da aplikagarria Foru Arau honen lehenengo eta bigarren xedapen iragankorretan xedatutakoa.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

##### **Lehenengo Xedapen Iragankorra. — Heriotzak**

Foru Arau honetako II. tituluko 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoa 2020ko ekitaldian hiltzen diren zergadunei ere aplikatuko zaie, heriotza abenduaren 31 ez den beste edozein gertatu bada.

##### **Bigarren Xedapen Iragankorra. — Prozedurak**

2020ko ekitaldia baino lehenagokoei dagozkien prozeduretan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari dagokienez, 2019ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia ezarriko zaie.

#### AZKEN XEDAPENAK

##### **Azken Xedapenetako Lehena. — Arauak emateko ahalmena**

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari, Foru Arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

##### **Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea**

Foru Arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta beraren artikuluetan berariaz ezarritako ondorioak izango ditu.

Bilbon, 2020ko uztailaren 15ean.—Batzar Nagusietako Bigarren Idazkariak, Emilio Lobato Pascualek.—Batzar Nagusietako Lehendakariak, Ana Otadui Biterik